

MUGIMENDU FEMINISTA
ETA HIZKUNTZA PRAKTIKAK
MAHAINGURUA

AZAROAK 13, asteazkena
18:30
Kultur Etxea
TOLOSA

Hizkuntzak nahiz generoak gizartean kokatzen gaitu. Batak bestea sakontzen, baina baita batak bestea ahalduntzen ere. Botere harremanen sarean, hala menpekotasunerako nola ahalduntzeko elementuak baitira hizkuntza eta generoa. Bien arteko elkargunetik aritzeak badu horregatik aparteko balioa: zentro patriarkal eta linguistikoetatik pasatu gabe, begiradaren zentroa aldatzeko aukera eskaintzen digu, eta identitate kolektiboa eta herrigintza eraikitzeko bide berriak zabaltu.

HIZLARIAK

EIDER OLAZAR ELDUAÏEN (Moderatzailea)

Tolosa, 1982. Kazetaria eta Mugimendu Feministako kidea.

PETRA ELSER

Frankfurt (Alemania), 1963. Itzultzailea eta Banaiz Bagara elkarteko kidea.

IDURRE ESKISABEL LARRAÑAGA

Beasain, 1970. Kazetaritzan lizentziatua eta EHuko irakaslea.

TARANA KARIM

Julfa (Azerbaijan), 1977. Zuzenbide ikasketak, Mugimendu Feministako kidea.

ITZIAR GANDARIAS GOIEKOTXEA

Bilbo, 1982. Gizarte Psikologian doktorea eta Deustuko unibertsitateko irakaslea.



SORMEN SAIOA



UXUE
ALBERDI
ESTIBARITZ

OIHANA
IGUARAN
BARANDIARAN



Euskaratik gaztelaniara **aldibereko itzulpen zerbitzua** emango da saio guztietan.

BABESLEAK



Euskara eta Feminismoa

Bidegurutzea elkargune

HITZALDI ZIKLOA

TOLOSA · VILLABONA · IBARRA · AMEZKETA · TOLOSA

Urriak 15, 22, 29

Azaroak 5, 13



EUSKALTALETASUNA ETA FEMINISMOA, AHALDUNTZEKO ELKARGUNEA

Hizkuntza eta generoa gurutzatzen direla badakigu, hizkuntza hautuak igarotzen direla genero eraikuntzatik eta alderantziz. Prestigioaren, pribilegioen eta eskubideen banaketak osatzen duen jendarteko botere sarean jokoan daude euskararen normalizazioa eta genero berdintasuna. Euskara eta generoa, biak dira menderakuntzaren alaba, eta, horregatik, biak dira ahalduntzeko eta boteretzeko lekua.

HIZLARIAK

IDURRE ESKISABEL LARRAÑAGA

Beasain, 1970. Kazetaritza lizentziatua eta EHUKo irakaslea.

LOREA AGIRRE DORRONSORO

Beasain, 1968. Kazetaria eta antropologoa. Jakin Aldizkari zuzendaria.



URRIAK 15, asteartea
18:30
Udaletxeko pleno aretoa
TOLOSA

EUSKARA ETA EMAKUMEAK, GENEALOGIA/BEGIRADA FEMINISTA BAT

Gaur, euskalduntasunaz eta feminismoaz dihardugu plazetan, baina zer nolako bidea egin izan dute elkarrekin? Zein da lotura horren genealogia posible bat? Gaur egun, elkartzen ote dira bi bide horiek? Hitzaldi honetan hainbat elementu zein hari mutur josten ahaleginduko gara, atzokoaz, gaurkoaz zein biharkoaz. Emakumez ariko gara, atzoko komunitate femeninoez eta gaurko komunitate feministez. Emakume izendatutakoez, baina saiatu gara hizkuntza eta subjektuen joserik horretan, subertsio eta eraldaketarako oihuak nahiz hitzak jasotzen eta aitortzen.

HIZLARIA

SAIOA IRAOLA URKIOLA

Leitza, 1987. Kazetaritza lizentziatua eta Bilgune Feministako kidea.



URRIAK 29, asteartea
18:30
Kultur Etxea
IBARRA

EUSKARA ETA GENEROA GURUTZATZEN DIRENEAN

Nola eragiten dute genero dinamikek hizkuntza praktiketan? Generoaren arabera joerak ikusten al dira euskararen diskurtso, erabilera eta ezagutza prozesuetan? Saio honetan euskara eta generoaren arteko gurutzaketaz hitz egingo dugu Hizkuntza Antropologiak eta Antropologia Feministak eskaintzen dituen tresnetan oinarrituta. Hainbat ikerketa kualitatibo eta kuantitatibo enaitzen bidez, datuen azpian egon daitezkeen genero dinamikak, harremanak zein arauak euskararen eremuan zein itxura hartzen ari diren irudikatze ahalegina egingo dugu.

HIZLARIAK

JAIME ALTUNA RAMIREZ

Amasa-Villabona, 1973. Gizarte antropologoa eta EHUKo irakaslea.

JONE MIREN HERNÁNDEZ GARCIA

Lasarte-Oria, 1970. Gizarte Zientzietan doktorea eta EHUKo irakaslea.



URRIAK 22, asteartea
18:30
Mintzola-Subijana Etxea
VILLABONA

GENEROA ETA HIZKUNTZEN ELKARGUNEA ERAIKITZEN

Badirudi azken urteetan interseksionalitate terminoa gero eta gehiago entzuten ari garela. Batzuentzako, azken hamarkadetan genero eta feminismo ikasketeei emandako ekarpen garantizatueneratiko bat da. Besteentzako, aldiz, modan dagoen neologismo besterik ez da eta fidegaitzak agertzen dira gaurko erabilera akritikoaz. Zer-nolako harremana duen interseksionalitatea euskararekin? Tailer honen helburua euskara eta generoa non gurutzatzen diren, ze ezaugarri partekatzen dituzten, bata bestetik zer ikas lezakeen eta bien arteko aliantzak ze esparru emankor zabaltzen digun hausnartzea da.

HIZLARIA

ITZIAR GANDARIAS GOIKOETXEA

Bilbo, 1982. Feminista eta Deustuko unibertsitateko Psikologia irakaslea.



AZAROAK 5, asteartea
18:30
Kultur Etxea
AMEZKETA